GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena

Aurki ikusgai: urtarrilak 29

Aurki ikusgai: ekainak 11

ASMAMENAREN ILDOA

Asmamenaren ildoa

- Datak: 2021eko ekainaren 11tik 2022ko otsailaren 6ra
- Komisarioa: Lekha Hileman Waitoller

- Erakusketan bildu diren egileek ezohiko materialak eta teknikak erabiltzen dituzte, asmamenaren eta umorearen adierazpen gisa konbentzio estetikoei modu ludiko batean desafio eginez.

- *Lenin andrea eta urretxindorra* (2008) bere sail ikonikoan, Baselitzek alderantziz aurkezten ditu giza irudiak, mihise handi eta espresiboetan, ikuslearen urruntasuna eta halako abstrakzio formal bat lortuz, osagai figuratiboa galdu gabe.

- *Hichiko Happo* (2014), Yoko Onoren keinu-pintura da. Artistak performance publiko zirraragarri batean sortu zuen 2014an Museoan izan zuen erakusketan, eta Onok performancearen eta plastikaren arloetan jorratutako bideak laburbiltzen ditu.

Guggenheim Bilbao Museoak *Asmamenaren ildoa* aurkezten du, Museoaren Bildumako obra-sorta bat, baita beste batzuk ere, epe luzerako maileguan daudenak, asmamen handikotzat eta esperimentaltzat jo daitezkeenak. Erakusketa honek belaunaldi desberdinetako artistak biltzen ditu, baliabide desberdinekin lan egiten dutenak, eta Bildumako pieza adierazgarri batzuk hartzen ditu barnean, apenas ikusgai jarriak, publikoarentzat ezagunagoak diren beste batzuekin batera. Erakusketan barne hartutako egileek, jakinguraz erabiltzen dituzte ezohiko materialak eta teknikak, eta haietako askok, modu ludiko batean, asmamena eta umorea aditzera emanda, desafio egiten diete konbentzio estetikoei.

Asmamenaren ildoa Lekha Hileman Waitoller arte-arduraduna komisario duen lehenengo erakusketa da. Art Institute of Chicagotik etorria, 2019ko urrian hasi zen Guggenheim Bilbao Museorako lanean.

305 aretoa. Tradizioari desafio egiten

Gaika antolatua, lehenengo aretoa artistaren estudioko ohiko testuingurutik kanpo sortutako obrei eta ezohiko prozesu artistikoei eskainia da. Areto honetako obra batzuek ustekabeko moduan hartzen dute espazioa; horren adibide dugu Cristina Iglesiasen *Titulurik gabea* (*Alabastrozko gela*) [*Sin título (Habitación de alabastro)*, 1993], aretoko izkina baten arkitektura bere baitan hartzen baitu. Obraren alabastro zeharrargizko xaflak sotiltasunez ageri dira airean flotatzen, bi muturretan leunki makurtuta, eta aldi berean inguruan duten argia, baita espaziokoa ere, aldarazten dute. Alyson Shotzen *Gogoeta-objektua* (*Object for Reflection*, 2017), berriz, altzairuzko uztaiez lotutako aluminio zulatuzko hamaika piezez osatua da. Urrutitik, eskultura astun eta handi bat dirudi objektuak, baina arretaz begiratuz gero konturatu gaitezke zein zeharrargia eta malgua den materiala. Izan ere, obra honek instalatzen denean soilik hartzen ditu hiru dimentsioak: sabaitik zintzilik, tentsioak eta grabitateak eskultura bihurtzen dute metalezko xafla.

Hichiko Happo (2014) obra prozesu artistikoaren adibide berezia da, Yoko Onok 2014an Guggenheim Bilbao Museoak eskaini zion atzera begirako erakusketa zela eta sortu zuen pintura hau performance zirraragarri batean. Artistak "zazpi zori eta zortzi altxor" esaldia margotu zuen japonieraz obra osatzen duten bederatzi mihiseen gainean. Onok Sumi tinta beltza erabili zuen bizitasun handiko keinuetan performancean. Tinta tantaka eta jariatzen zabaldu zen mihise bakoitzean, ekintza-pinturaren tradizioa, baita bere jaioterri Japoniako antzinako kaligrafia ere, gogora ekarriz.

Bestalde, Peter Fischli eta David Weiss artisten *Gauzen norabidea* (*Der Lauf der Dinge,* 1987) piezan, katean sorrarazten den erreakzio zinematikoak mugimendu etengabe baten irudipena sortzen du material arrunten bidez: gurpilak, su artifizialak eta globo bat, besteak beste. Itxura sinple batekin aurkeztua, hutsegite prestatuen sekuentzia bat da filma; erorikoak, isuriak eta eztanda txikiak jasotzen ditu, etenik ez duen kaos kontrolatu bat sortzeko. Pieza honetan absurdua eta eguneroko objektuak bat egiteak desafio egiten die goi-mailako kulturaren oinarriei, jolasaren eta esperimentazioaren asmamen handiko konbinazio batean.

306 aretoa. Irudikapen-moduak

Erakusketaren bigarren aretoak obra figuratiboen sorta bat biltzen du. Artistek giza formaren gaiari heltzen dioten modu anitzak irudikatzen dituzten obrak dira hauek. Areto honetan bildutako egileetako batzuek erabili duten estrategia seriean egindako errepikapena da, mihise bat baino gehiagotan edo konposizio bakar batean. Obra hauek, berrogeita hamar urteko denbora-tartean sortuak, agerian jartzen dituzte figurazioari heltzeko modu desberdinak, irudikapenaren azpian den esperimentazio formala eta kontzeptuala ezagutzera emanda.

Erakusketaren barruan Georg Baselitzen *Lenin andrea eta urretxindorra* (*Mrs. Lenin and the Nightingale,* 2008) hamasei mihisez osatutako sail ikonikotik egindako hautaketa bat dago ikusgai. Mihise handi eta espresiboez osatutako sail honetan Baselitzek azpikoz gora aldatu zuen erretratuaren genero tradizionala figurak alderantziz irudikatzerakoan. Sail honetako obren erdiak kolore biziekin margotutako pertsonaiak erakusten dituzte, hondo zuri baten aurrean; beste erdiak, berriz, tonu gris eta urdinxketan irudikatzen dituzte, hondo beltz baten gainean; irudia nabarmentzen duen baliabidea, alegia. Baselitzek zioen bere obretan irudiak alderantzikatuta margotzeak behatzailearengan urruntasuna sorrarazteko balio ziola, hark arreta handiz behatu behar baitzuen edukia. Formalki, koadro hauek halako abstrakzio bat lortzen dute, nahiz eta osagai figuratiboa mantendu aldi berean.

Espazio honetan bertan, emakume irribarretsuen pintura-sorta bat ere erakusten da, Alex Katzen *Irribarreak* (*Smiles*, 1994) saila osatzen duten hamaika mihiseetatik hautatuak. Katzek behin eta berriro erabiltzen ditu figuraren motiboa, kolore lauekin egindako erretratua, pinturaren espazio ez oso sakona eta lerro soilak, baina zeharo deskribatzaileak, hondo monokromo baten aurrean. Bere gaiak tresna bat dira artista honentzat, irudiaren eta hondoaren arteko dikotomia tradizionalaren inguruko ikerketa artistiko bat egiteko. Artistaren helburua ez da modeloen nortasuna deskribatzea, hausnarketa sakonago bat eskaintzea baizik, errepresentazioaren izaerari eta irudien pertzepzioei buruzkoa. Katzek errepikatu egiten ditu konposizioaren egitura, irudiaren eta hondoaren tratamendua, eta keinua —irribarrea—, behatzailearen

arreta, pertsonaia jakin batean baino, irudikapen desberdinetan baliatu duen esperimentazio piktorikoan jartzera bideratzeko.

307 aretoa. Materialak eta metodoak

Azkeneko aretoak biltzen dituen obra abstraktuak asmamen handikoak dira beren metodoetan eta materialetan, eta beren mugetatik haratago eramaten dituzte artearen baliabide desberdinak. Egile batzuek material ezohikoak baliatzen dituzte, besteak beste, pintura komertziala, zeramikak, edo arbela eta klera. Pieza horiek materialen eta metodoen inguruan artistek egin duten hautaketari buruz hausnartzera gonbidatzen dute behatzailea, baita eskaintzen dizkieten aukera desberdinei buruz ere.

Julian Schnabel 1979an hasi zen plater apurtuen pintura bereizgarriak ikusgai jartzen. Horietan, baxera-zatiak txertatzen zituen Bondo izeneko poliester-erretxina antzeko batean, eta haien gainean, ondoren, landugabe margotzen zituen irudiak olio-pinturaz. Duten eskala heroikoagatik, motibo distortsionatuengatik, eta testura gainkargatuengatik nabarmentzen diren pintura hauek 1978an artistak Bartzelonara egindako bisita batetik sortuak dira, non Antonio Gaudí arkitekto katalanaren mosaikoak ikusteko aukera izan baitzuen. Zenbait obratan, besteak beste, *Espainia* (*Spain*, 1986) monumentalean, Schnabelek pinturara eramaten du mosaikoaren gainazala, eta hala eraldatzen ditu biak prozesuan: plater eta katilu apurtuak pintzelkada eskultoriko zakarrak balira bezala ateratzen dira gainazaletik, eta eten egiten dute pinturaren planoa.

Erlea Maneros Zabalaren lanak hedabideek narratiba garaikideen osaeran betetzen duten zeregina arakatzen du, irudiak tratatzen dituzten moduen eta historiari buruz duten ikuspegi subjektiboaren bitartez. 2013ko *Euskal grafia; tipografia eta apaingintza: 1961–1967* (*Basque Graphics; Typography and Ornament: 1961–1967*) bere obran, Maneros Zabalak bere egiten du esanahi politikoz eta historikoz jositako ikonografia bat, eta alderantzikatu, eraldatu eta sail bihurtzen du. Obra osatzen duten kobrezko hogeita hemeretzi xaflek ez dute orri inprimatua erakusten, testua sortzen duen matrizea baizik, aurkezpen arkeologiko baten moduan, zeinaren asmoa baiten erreprodukzio-prozesu mekanikoa erakustea, teknologia industrial zaharkitu baten bidez.

Areto honetako artista askok pinturaren fisikotasunarekin esperimentatzen dute. Prudencio Irazabalentzat, bere baliabidea polimero likido jariakor bat da funtsean, zeinari gela eransten baition loditzeko, pigmentu-kantitate txikiak gehitu aurretik, kolore desberdinak lortzearren zeharrargitasun-maila desberdinarekin. Pinturen biskositateagatik, artistak ertz batzuk ipintzen ditu aldi baterako, jariagaia alboetatik isur ez dadin. Gainazala eraikita duenean, kendu egiten ditu ertzak, eta horrela gainazalaren sakonera eta kolorearen argitasuna uzten ditu agerian; horren adibide dugu *Titulurik gabeak 767. zk.* (*Sin título #767*, 1996). *Asmamenaren ildoa*k hainbat estilo eta mugimendu hartzen dituzten obren berrikuspen bat aurkezten du. Obra hauek, asmamena, esperimentazioa eta praktika artistiko bereizgarriak arakatzen dituzten gai espezifikoetan oinarrituta daude. Artelanak elkarren arteko elkarrizketa batean instalatu dira, eta aukera aparta eskaintzen dute materialak eta teknikak aukeratzean artistek hartzen dituzten erabaki kritikoak behatzeko, beren metodologia artistikoaren eta prozesu indibidualaren fede emanez.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren barruan –BBKk babestua– espazio honetan online edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak erakusketa bakoitzaren osagarri gisa, ikusgai dauden obrez gehiago gozatzeko tresnak eta baliabideak eskaintzearren.

Asmamenaren ildoa erakusketarako diseinatutako hezkuntza-espazio honek hurbilketa tekniko bat eskaintzen du bertan bildutako artistek erabilitako lan-prozesu desberdinetara. Ezohiko materialak eta teknikak, teknologien erabileran edo eraikinaren arkitekturan oinarrituak, agerian geratzen dira bai pieza figuratiboetan, bai abstraktuenetan. Nola konbinatu material desberdinak efektu berriak lortzeko?

Erakusketari loturiko jarduerak

Asmamenaren ildoari buruzko sarrerako solasaldia (ekainak 9)
Lekha Hileman Waitollerrek, Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren arte-arduraduna eta erakusketako komisarioa den aldetik, funts propioen eta epe luzerako maileguak biltzen dituen erakusketa honen ezkutuko kontu batzuk azalduko ditu.

Hausnarketa partekatuak
Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza arloetako profesionalek eskainitako aparteko bisita hauetan ikuspegi desberdinak ematen dira erakusketa berriaren edukiei buruz.

- Arte-arduradunen ikuspegia (ekainak 16): erakusketaren komisario Lekha Hileman Waitollerrek ibilbide bat egingo du erakusketako obra nagusietatik.
- Funtsezko kontzeptuak (ekainak 23): Luz Maguregui, Hezkuntzako koordinatzailea, obren gako nagusiei eta didaktikoei buruz arituko da solasaldian bertaratuekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Sorkuntza-saioa: Ekin lanari (urriak 14)
Tailer honetan materialak eta teknikak lantzeari ekingo zaio, besteak beste Sigmar Polke eta Jean-Michel Basquiat artistek erabiltzen zituztenak.

Sormen-saioa: Irudia mugimenduan (azaroak 18)
Helduentzako tailer honetan, erakusketan ikusgai dauden obretatik ikus-entzunezkoak gehien jorratzen dituztenak arakatuko dira, Peter Fischliren eta David Weissen piza abiapuntutzat hartuta.

Bertako sortzaileek Bildumako obrak berrinterpretatzen dituzte
Erakusketako obren aurrean egindako solasaldi hauetan, diziplina desberdinetako bertako artistak elkarrizketan arituko dira parte-hartzaileekin, Museoaren Bildumako obrak haien begiradaren bitartez behatu ahala.

GUGGENHEIM BILBAO

Azaleko irudia:

Georg Baselitz
Lenin andrea eta urretxindorra
Lucian eta Frank aire zabalean (*Lucian und Frank Plein-air*), 2008
Olio-pintura mihise gainean
Guggenheim Bilbao Museoa
© Georg Baselitz, Bilbao, 2021

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazioa eta Marketina saila
Tel: +34 944 389 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenhem-bilbao.eus

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsak erabiltzeko irudiak
Asmamenaren ildoa
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsako online irudien zerbitzua
Museoaren web-orriko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezkete bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu. Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta –gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Asmamenaren ildoa* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2021eko ekainaren 11tik 2022ko otsailaren 6ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoan.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe, azaletan ez ezik; kasu horretan, artistaren estudioak onetsi beharko du maketa. Erreprodukzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektroniko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko berezimena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta aldez aurretik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Peter Fischli eta David Weiss
Gauzen norabidea (*Der Lauf der Dinge*), 1987
Bideo moduan transferitutako 16 mm-ko film soinuduna, 30 min
Tubacex
© Peter Fischli, Bilbao, 2021
© David Weiss, Bilbao, 2021

Alyson Shotz
Gogoeta-objektua (*Object for Reflection*), 2017
Aluminio zulatua eta altzairu herdoilgaitzezko uztaiak
309,88 x 368,3 x 144,78 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Alyson Shotz, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2021

Antonio Saura
Karl-Johann Strasse II, 1997
Olio-pintura mihise gainean
200 x 400 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Antonio Saura, Bilbao, 2021

Georg Baselitz
***Lenin andrea eta urretxindorra* (segidako 4 obra hautatuak)**
Lucian eta Frank aire zabalean (*Lucian und Frank Plein-air*), 2008
Olio-pintura mihise gainean
300 x 250 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Georg Baselitz, Bilbao, 2021

Hari zuri baten moduko argitzea, Pragari buruzko Kikiren ametsa
(*Hellung als weißer Faden, Kikis Traum von Prag*), 2008
Olio-pintura mihise gainean
300 x 250 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Georg Baselitz, Bilbao, 2021

Jean-Michel Basquiat
Napoliko gizona (*Man from Naples*), 1982
Akrilikoa eta collagea zur gainean
124 x 246,7 x 3,5 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Estate of Jean Michel Basquiat, VEGAP, Bilbao, 2021

Sigmar Polke
Kathreiner, goizean, zakila tente (*Kathreiners Morgenlatte*), 1969–79
Akrilikoa, zura, baliabide anitzak, collagea markoarekin mihise eta ehun gainean
235 x 305 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Sigmar Polke, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2021

Erlea Maneros Zabala
Euskal grafia; tipografia eta apaingintza 1961–1967
(*Grafía Vasca; tipografía y ornamentación: 1961–1967*), 2013
Kobre-xafla gaineko grabatua
32 x 45 x 9 cm (markoarekin) bakoitza
Guggenheim Bilbao Museoa
© Erlea Maneros Zabala, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2021



GUGGENHEIM BILBAO

Prudencio Irazabal

Titulurik gabeak 767. zk. (*Sin título #767*), 1996
Akrilikoa oihal gainean zurezko panelen gainean
211 x 347,5 x 6,3 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Prudencio Irazabal, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2021

Julian Schnabel

Espainia (*Spain*), 1986
Olio-pintura, platerak eta Bondoa zur gainean
333 x 580 x 23 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Julian Schnabel, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2021